

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 21ekoa, HABEren zuzendari nagusiarena, Udal Euskaltegien titularrek eginiko eskaerak onartu eta 2022-2023 ikasturtean euskara klaseak emateagatik dirulaguntzak ebazten dituena.

AURREKARIAK

Ikusita udalen edo udal erakundeen menpeko euskaltegiek (eranskinean zerrendatzen dira) eginiko dirulaguntza eskaerak aurkeztu dituztela 2022ko irailaren 17tik azaroaren 4ra bitarteko epean, eta kontuan hartuta aurkeztutako eskariak HABEren zuzendari nagusiaren 2022ko abuztuaren 31ko eta 2022ko Ebazpenek onartutako oinarrietan ezarritakoarekin bat datozela

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.- Eranskinean zerrendatzen diren Udal Euskaltegiei 2022-2023 ikasturterako bertan aipatzen den **pertsonala** onartzea, honakoa delarik euskaltegi guztiena:

- 39 zuzendari (16. maila, bakoitzeko 40.432,55 euro)
- 13 idazkari akademiko (14 maila, bakoitzeko 37.059,88 euro)
- 194,5 irakasle (13 maila, bakoitzeko 35.237,69 euro)
- 13,5 administrari (10 maila, bakoitzeko 30.651,85 euro)
- 21,6 administrari laguntzaile (8 maila, bakoitzeko 27.685,32 euro).

BIGARRENA.- Udal Euskaltegi bakoitzaren titularrari Eranskinean adierazten den **dirulaguntza guztia** onartzea, 2022-2023 ikasturteko jardunagatik, 2022ko abuztuaren 31ko Ebazpenaren I. Eranskinaren 7. oinarrian aurreikusten duen kitapen ebazpenaren bitartez doitu daitekeelarik. Euskaltegi guztiena **11.489.591,87** eurokoa da

HIRUGARRENA.- Deialdiaren 10. oinarriari jarraiki, esleitutako dirulaguntzaren **% 10** aurreratzea aurre-ordainketa gisa, hau da, Eranskineko **2022** izeneko zutabean zehazten dena, guztira **1.148.959,18** euro izango direlarik.

LAUGARRENA.- Deialdiaren artikulua berak dioen bezala, bigarren aurre-ordainketa bat egitea 2023ko otsailean, esleitutako dirulaguntzaren **% 40koa**, guztira **4.595.836,76** euro izango direlarik.

BOSGARRENA.- 2022ko abuztuaren 31ko Ebazpenaren 10. oinarrian aurreikusitakoa betetzeko, onartutako diru-laguntzaren **% 40,00** 2023ko apiriletik aurrera ordaintzea, udal euskaltegiek, Ebazpenaren 11. oinarrian zehaztu bezala, gastuak zurtzeko bidali beharreko agiriak jaso eta aztertu ondoren, euskaltegi guztiena **4.595.836,76** eurokoa delarik.

SEIGARRENA.- Esleitutakoaren gainerakoa, hau da Eranskineko **kitapena** izeneko zutabean zehazten dena, edo horren ordeztu Kitapen Ebazpenak erabaki dezana, euskaltegiek bere jardun osoa ondo zurtitu eta agiriak bidali ondoren ordaintzea, euskaltegi guztientzat **1.148.959,18** euro aurreikusten direlarik.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Ebazpen honen aurka, administrazio bidea agortzen ez denez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioke Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuari. Horretarako, hilabeteko epea izango dute Ebazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Donostia, 2022ko abenduaren 21ean

Iz.: Jokin Azkue Arrastoa
HABEren zuzendari nagusia

